

1. ariketa: aukeratu erantzuna

Hemengo turismoaren inguruko elkarrizketa entzungo duzu jarraian.

- Entzuten hasi aurretik 2 min dituzu galderak irakurtzeko.
- Lehenengo entzunaldia bukatu eta gutxira, bigarren aldiz entzungo duzu.
- Bigarren aldiz entzun ondoren, 1 min duzu ariketa amaitzeko.

Nahi duzunean hasi erantzuten.

- 1. Zer hartu behar dugu kontuan turismoaz ari garenean?**
 - a) Sektorearen gainbehera.
 - b) Enplegua eta azpiegiturak.
 - c) Sektoreak mugitzen duen dirutza.
- 2. Zer gertatzen ari da bisitari kopuruarekin krisi-garai honetan?**
 - a) Asko igo da.
 - b) Galera handia egon da.
 - c) Ez da aldaketa nabarmenik egon.
- 3. Zenbat egun ematen dute bisitariak hemen?**
 - a) Iparraldeko barnealdean ia bi egun eta gainerakoetan bat eta gutxi gehiago.
 - b) Iparraldeko barnealdean egun bat eta gainerakoetan ia bi.
 - c) Iparraldeko barnealdean ia hiru egun eta gainerakoetan bat edo gutxiago.
- 4. Zer lurraldetan sumatzen da bisitarien beherakada?**
 - a) Nafarroa Garaia eta Araba.
 - b) Bilbo inguruan.
 - c) Gipuzkoan bereziki.
- 5. Zein da Gipuzkoako egoera?**
 - a) Ez du espero zen hazkundera izan.
 - b) Datu onak izan dituzte.
 - c) Beste lurraldeetan baino eragin handiagoa izan du krisiak.
- 6. Zenbat langile ari dira sektorean lanean?**
 - a) 20.000 langile ostalaritzan eta beste horrenbeste sektore osoan.
 - b) 20.000 langile, erregistratuta ez daudenak barne.
 - c) 20.000 langile erregistratuta eta beste hainbat zeharkako lanetan.
- 7. Nolakoak dira sektore honetako langileen lan-baldintzak?**
 - a) Industriak eskatzen dituenak baino hobeak.
 - b) Industriak eskaintzen dituenak bezain onak.
 - c) Ez dira industriak eskaintzen dituenak bezalakoak.
- 8. Zer da aktibitate ekonomiko honen erronka?**
 - a) Urte osokoa izatea.
 - b) Lan-baldintzak malguak izatea.
 - c) Aktibitate erregistratua izatea.
- 9. Zer da ezinbestekoa turismoaren kontraesanei aurre egiteko?**
 - a) Diru-laguntzak, turismoa aktibitate bakarra izateko.
 - b) Aktibitate ekonomikoaren dibertsifikazioa.
 - c) Turismoan oinarritzea aktibitate ekonomikoa.